

Adei Enparantza Agirre

E maila • 1 saria

Adei Enparantza Agirre naiz eta 2009ko apirilaren 30ean jaio nintzen. Beasaingo Alkartasuna Lizeoan ikasten dut, eta aurten 6. maila egiten ari naiz. Nire zaletasunak korrika egitea eta marraztea dira. Aurten Covid-19 dela eta, herria geroz eta tristeagoa zegoela iruditzen zitzaidan, ondorioz, ipuin honetarako ideia sortu zitzaidan, LOREDUN GIZONA. Zuen gustokoa izango dela espero dut.



LOREDUN GIZONA

Bazen behin batean herriska bat, baina inor ez zen gogoratzen bere izenaz, izan ere, hain zen goibela, grixa eta tristea aspaldi ez zela bertara inor gerturatzen. Herri hartan irribarrerik ez zegoen, ezta zorionik edo alaitasunik ere.

Herritarrak ez ziren bat ere ondo konpontzen, eta beti eztabaidan edo ika-mikan zebiltzan. Harakinak okina gorroto zuen, behin ogi gogorra eman ziola esaten zuen, eta okinak ere gauza bera, beste behin harakinak haragi ustela saldu ziola. Ezin zuten elkar ikusi. Txakurrek zaunka eta hozka edonori egiten zioten, jabeei eurei ere bai. Udaltzainek isunak ibilgailu guztiei jartzen zizkieten, aparkatuta ondo egon edo gaizki, berdin zitzaien. Herriko berdeguneetan loreak ximelduta eta ihartuta egoten ziren. Denda asko itxita zeuden eta kaleko farolek ez zuten argitzen. Irakasleak ikasleei errieta egiten zien eta kalean umeen hotsik eta barrerik ez zen entzuten. Dena zen oso iluna eta tristea.

Behin, agure bat iritsi zen herrira, txapel zahar bat buruan, eskuan poltsa bat zintzilik eta alboan txakurtxo bat lagun. Paparrean lore bat eta aurpegian irribarre pozgarria. Baina inor ez zen konturatu, nola ba, denak lurrera begira ibiltzen ziren ...

Gaua heldu zenean, eta herritarrak lanegun luze baten ondoren etxeratu zirenean, aittona kalera irten zen, eta isil-isilik autoetatik banan-banan isunak kendu eta haien ordez loretxo bat jarri zuen. Gau guztia igaro zuen lan horretan. Eguna argitu zenerako auto guztiek loretxoa zuten, eta herritarrak esnatu zirenean sekulako poza hartu zuten betiko isunaren ordez lorea aurkitu zutelako. Denak udalatzain-etxera joan ziren eskerrak ematera. Udaltzainek ez zekiten zergatik zen, baina beraiek ere asko poztu ziren herritarrak horrela ikustean, beti elkarri oihuka eta iskanbilan ibiltzen ziren eta. Agian hainbeste isun ez zutela jarri beharko iruditu zitzaien. Hobe zen jendea alai eta adiskidekor ikustea marmarrean baino. Loredun gizonak barre egin zuen bere etxeko lehio atzetik.

PROSA

Hurrengo egunean agurea okindegira joan zen ogia erostera eta ondoren harategira oilasko-izter batzuen bila. Harakinak beste aldera begiratu zuenean ogia utzi zion lore batekin eta gero ezkutuan okinari oilasko-izterrak beste lore batekin. Batak besteari barkamena eskatzeko egin zuela pentsatu zuten, eta biak poz-pezik etxeratu ziren egun horretan.

Iluntza horretan loredun gizona herriko txakur guztientzat janari goxoa prestatzen aritu zen, haragi-hezurak eta arroza. Bukatu zuenean txakurren etxoletara joan zen eta nagusiek utzi zieten ogi zahar lizundua kendu eta berak sukaldatu zuen jaki goxoa utzi zien. Hurrengo goizean txakur guztiak poz-pezik atera ziren kalera, eta harrigarria, zaunka egin ordez jendea miazkatu eta beraiekin jolas egin nahi zuten.

Gure laguna egun horretan berdegunetako landareak ureztatzen aritu zen, hesiak kolorez margotzen eta kaleko argiak konpontzen. Bukatu zuenean kaleak benetan itxura ederra eta alaitsua zuen.

Horrela poliki-poliki egunero gainontzekoen bizimodua hobetzen saiatu zen. Irakasleak lora-sorta atarian aurkitu zuenean ikasleak zigortu beharrean jolasak eta abestiak erakutsi zien. Eta umeak arratsaldean parkean pozik eta algaraz abestu eta jolastu zuten.

Herri gris hura koloretsu bihurtu zen, eta berriz ere beste herrietako jendea bertara etortzen hasi zen, denda berriak irekitzen eta bizimodua asko hobetu zen. Inork ez zekien oso ondo nola gertatu zen, baina argi zegoena zen akzio onek era berean ondorio onak eragiten zituztela. Zenbat eta alaitasun gehiago, orduan eta giro hobea zela herrian konturatu ziren.

Norbaitek esan zuen duela aste batzuk agure zahar bat ikusi zuela herrira ailegatzen, baina inork ez zekien orain non zegoen. Parke aldameneko etxean bizi ote zen esan zuen beste batek, baina bertara joan zirenean lurrean lore bat besterik ez zuten aurkitu, baina agurearen arrastorik ez. Etxea itxita zegoen. Bazirudien bertan bizi zena joan egin zela.

Bitartean agurea handik kilometro batzuetara bidean aurrera barrezka zihoan. Buruan txapel zaharra, paparrean lorea, eskuan poltsa zahar bat zintzilik eta alboan txakurra. Han aurrean beste herri triste eta goibel bat ikusi zuten. Aittonak paparreko lorea ikutu zuen, begi bat itxi zion txakurrari eta biek barre egin zuten.